

“Inauterietan, Mendibil San Valentín janzten da” SUSTAPENAREN OINARRIAK

Mendibil Merkataritza Parkeko Jabeen Erkidegoak (helbidea: Almirante Arizmendi kalea 9, 20302, Irun, Gipuzkoa, IFK: H-20818944), 200 euroko zozketa antolatu du opari txarteletan, "Inauterietan, Mendibil San Valentín janzten da" sustapenarekin.

Sustapen-ekintza hau otsailaren 1etik 14ra (biak barne) Mendibil Merkataritza Zentroko bezeroei zuzenduta dago, hain zuzen bertako establezimenduetan erosketak egiten dituztenei. Erosketa horiek parte hartzeko aukera emango diete, 40 euroko 5 sarien zozketaren sustapenaren mekanika betez. Sariak opari txartelak izango dira Guztira, 200€ banatuko dira opari txarteletan.

SUSTAPENAREN MEKANIKA

Sustapenean parte hartu ahalko dute Mendibil Merkataritza Zentroko establezimenduetan erosketak egiten dituzten eta adinez nagusiak (18 urte beteak) diren guztiek, sustapenak dirauen bitartean.

Bezeroak erregistratu beharko du parte-hartze formularioko eremu guztiak betez eta 20€-ko edo kopuru horren baliotik gorako erosketa txartelari dagozkion datuak sartuz www.centrocomercialmendibil.com merkataritza zentroaren web orrian. Aipatutako erosketa txartel hori aurkeztu beharko da saria jasotzekoan, 5 sari horietako bat irabaziz gero.

Behin bakarrik parte hartu ahalko da txartel bakoitzarekin eta pertsonak berak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Zozketa honetan ezingo dute parte hartu, espresuki, Mendibil Merkataritza Parkeko Jabekideen Erkidegoko langileak, ezta ohiko lana zentroan bertan edo establezimenduetan egiten dutenek ere.

ZOZKETAREN MEKANIKA

5 opari-txartelen zozketa otsailaren 15ean (astelehena) egingo da.

Opari txartelak jasotzeko, saridunek merkataritza zentroko gerentzia bulegora jo beharko dute, webean egindako erregistro-datuak erosketa txartelaz eta NAN dokumentuaz egiaztatuz.

Irabazle bakoitzari 10 euroko 5 opari-txartel emango zaizkio, txarteletan adierazitako Mendibil Merkataritza Guneko saltokietan erabili ahal izateko. Opari txartelak baliozkoak izango dira 2021eko otsailaren 28ra arte.

PARTE HARTZEKO NAHITAEZKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK

Sustapenean parte hartuz gero, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira; hortaz, oinarriak onartzen ez direla adieraziz gero, parte-hartzailea sustapenetik kanpo geratuko da. Horrenbestez, Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoak ez du parte-hartzailearekin aurretik hartutako inolako betebeharririk edukiko.

Sustapenaren sariak indarrean dauden zerga- eta lege-xedapenen mende daude.

Mendibil merkataritza-guneak sustapen honen baldintzak edozein unetan aldatzeko eskubidea izango du, bai eta kanpaina amaitu baino lehenago sustapena deuseztatzeko eskubidea ere, baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude.

Irabazleak ezin izango dio saria beste inori laga eta sariak ez dira inolaz ere diruagatik trukatu.

Zozketaren irabazleek beren irudi-eskubideak laga eta baimentzen dizkiote Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari, eta, gainera, jabeen erkidego horrek haien izen-abizenak, bizi diren hiria eta herrialdea eta irudia erabili ahal izango ditu barne zein kanpo komunikabideetan merkataritza-gunearen publizitatea egiteko. Horrez gain, erabiltzeak ez die lortutako saria baino eskubide gehiagorik emango. Irabazleak ez badizkio Mendibil merkataritza-parkeko jabeen erkidegoari hemen aitortutako eskubideak baimentzen, ulertuko da irabazleak ez duela saria nahi. Horrenbestez, jaso baldin badu, itzuli beharko du.